


bidaiak

Jatorri eta kultur
aniztasuna euskal egitasmo
nazionalaren eraikuntzan





Plaza Hutsa

Zuatzu Enpresa parkea
Zuatzu kalea, Easo Eraikina, 4 beheak.
20018 Donostia (Euskal Herria)
fundazioa@iratzar.net
www.iratzar.eus

Diseinua eta maketazioa

Lubaki Grafik Faktøry

Inprimaketa

Gertu inprimategia (Oñati)

Lege Gordailua

LG D 1030-2024



bidaide

Jatorri eta kultur aniztasuna
euskal egitasmo nazionalaren eraikuntzan





Badira norbere gogoz abiatzen diren bideak. Badira halabeharrez abiatutakoak, bizitza duin baten bila. Badira itzulerarik ez duten bidaiak. Badira, helmugak bainoago, mugek ardaztutakoak. Gogoz bezainbeste halabeharrez ekin genion guk ere Euskal Herri askearen porturainoko bideari. Eta, muga eta gorabehera guztiekin, aurrera goaz. Bide horretan, bidaide gara hemen bizi eta lan egiten dugun guztiok, geure amets, hizkuntza eta kultura. Bidaide, elkarrekin goazelako, batera. Eta bidaide, gogaide ere bagarelako. Ezen, elkarrekin ibili ez ezik, Euskal Herria elkarrekin pentsatu eta eraiki nahi dugu. Bideak berak egingo baikaitu herri, egingo baikaitu gu.

Sar hitza	13
Euskal Herrian lan egin edo bizi den oro euskal herritarra da	15
Euskal Herriko immigrazio etapak	15
Ezker abertzalearen posizio historikoari begirada azkar bat	17
Gure posizio politiko historikoaren berrespena:	
Euskal Herrian lan egin edo bizi den oro euskal herritarra da	20
Migrazio berriak: erronka eta aukera	21
Zibilizazio krisiak eragindako giza mugimenduak	21
Migrazio berriaren ezaugarriak	21
Egungo argazkia datuetan	24
Jatorri eta kultur aniztasuna prozesu independentistan	31
Euskal estatuaren sortzaileak Euskal Herrian bizi garen	
herritar guztiok izango gara	31
Oinarri estrategikoak	33
Dekolonialismoa. Euskal herritarrok gure kokalekua aurkitu beharraz	34
Eskubide guztiak herritar guztientzat	35
Kulturartekotasuna eta inklusioa	37
Ildo estrategikoak	39
Euskal Herria harrera herria	40
Euskal Herria elkarrekin bizi, elkarrekin eraikitzeko	41
Arrazakeriaren kontrako dinamika indartu	44
Euskara eta etorkinak: erronka, eta ez arazoa	44
Gure burua deseraiki beharraz	47
Azken hitza	49

Sar hitza

Euskal herritarron jatorriari eta kulturari erreparatuta, inoizko Euskal Herri pluralenean bizi gara. Egungo Euskal Herriaren ezaugarri bat da hori. Eta etorkizunekoarena ere izango da. Izan ere, prospekzio guztien arabera, datozen urteetan migrazio mugimenduek gora egingo dute. Egoera horren aurrean, hiru aukera ditugu: ez ikusiarena egin, eta errealitate hori existituko ez balitz bezala jokatu; mehatxu gisa ikusi, eta jarrera defentsiboak hartu; edo aukera gisa ulertu, eta gure proiektu nazionala aberasteko eta zabaltzeko bide gisa kokatu. Bada, gogoeta honen bidez, guk hirugarren aukeraren aldeko hautua egin dugu.

Zalantzarik gabe, gurea bezalako estaturik gabeko nazio batentzat gai hori estrategikoa da. Azken urte hauetan hainbat eragile eta norbanakok zenbait gogoeta egin dituzten arren, uste dugu ezker independentismoak baduela premia gai horretaz gogoeta estrategikoa eraberritzeko. Halaber, jakitun gara jatorri eta kultur aniztasunaren gaiari hainbat ertzetatik hel dakiokela. Gure hautua egitasmo nazionala eraikuntzan ekarpena nola egin dezakeen hausnartzea izan da.

Amaitzeko, ohar bat gogoeta egiterakoan izan badugun hutsune bati buruz: zoritxarrez, onartu beharra dugu, egun, oraindik, patriarkatuak zeharkatzen gaituen hein berean, ikuspegi mendebaldarrak ere zeharkatzen gaituela; horrek dituen ondorio guztiekin. Horregatik, prozesu honen helburuetako bat da ikuspegi hori bera berrikusten hastea.

Euskal Herrian lan egiten duen edo bizi den oro euskal herritarra da

Euskal Herriko immigrazio etapak

Jatorri eta kultur aniztasunaren dimentsio osoa kontuan hartu ahal izateko, Euskal Herrian immigrazioen errealitateak izandako bilakae-rari erreparatzea ezinbestekoa zaigu. Gauzak horrela, nolabaiteko etapa batzuk jartze aldera, Hego Euskal Herriaren kasuan, hiru une bereiz genitzake: baga, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendea-ren hasieran gertatutakoa. Bizkaiko eskualde batzuetan (Bilbon eta Meatzaldean, nagusiki) izan zuen eragina. Biga, 1960ko eta 1970eko hamarraldietan jazo zena. Intentsitate ezberdinekoa izan bazen ere, Hego Euskal Herri osoan izan zuen eragina. Bizkaian eta Gipuzkoan, lehenik; Araban eta Nafarroa Garaian, ondoren. Higa, 2000ko lehen hamarralditik aurrera ezagutu duguna; oraindik martxan dena eta Euskal Herri osoan gertatzen ari dena.

Hainbat ezberdintasun aurki genitzake etapa horien artean, baina bada bat azpimarra merezi duena: lehen bi etapetan etorkinak espainiar es-tatuko lurraldeetatik etorri ziren; aldiz, hirugarren etapako etorkinen jatorria beste estatu batzuetakoa da (espainiar estatu barruko immi-grazioek jarraitu duten arren). Azpimarra merezi duela diogu, ezaugarri ezberdinak dituzten heinean, euskal egitasmu nazionalaren parte egi-teko estrategiak eta ildoak birpentsatzea ekarri behar lukeelako.

Atal honetan, lehen bi etapei erreparatuko diegu. Hirugarren etapa egun bizi duguna denez, dokumentuaren bigarren atalean landuko

dugu sakonago. Lehen bi etapetako immigrazio prozesuen inguruko datu askorik ez dagoen arren, badira orduko Euskal Herrian aipatu prozesuek eragin sakona izan zutela islatzen duten hainbat datu. Esaterako, XIX. mendeko azken laurdenean, Meatzaldea 25.000 biztanle izatetik 230.000 izatera igaro zen. Edota 1900. urterako Bizkaian bizi ziren herritarren % 26 atzerrian jaiotakoak zirela kalkulatzen da. XX. mendearen erdialdean gertatu zen migrazio aldiari dagokionez, berriz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko herritarrak 1.422.000 izatetik 2.334.000 izatera igaro ziren 1950etik 1970era. Eta 1973an, Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 47, maila batean edo bestean, etorkinen oinordekoa zen. Edo, bestela esanda, % 53k bakarrik zituen bi gurasoak Euskal Herrian jaiotak.

Nafarroa Garaia kasuan, 70eko hamarraldira arte migrazio saldoa negatiboa izan zen. Eta hamarraldi horretatik aurrera, gainontzeko herrialdeekin alderatuta, jasotako etorkin kopurua apalagoa izan zen: 1970ean herrialdetik kanpo jaiotakoak % 18 inguru ziren; aldez, Araban, esaterako, 1986an biztanleen % 34,5 kanpoan jaiotakoak ziren. Bizkaiko kasuan, biztanleen % 31,8. Eta Gipuzkoarenean, % 28,3.

Etorkinen % 64 bizi zen 40.000 biztanletik gorako udalerrietan 1986an. Migratzaile gehien jaso zituzten eskualdeak, Arabako Lautada (biztanleen % 36,7), Bilbo eta Ezkerraldea (% 34,7), eta Behe Bidasoa (% 35,7) izan ziren.

Immigrazio aldi horren kausak aztertzea konplexua da. Edonola ere, prozesu hori, frankismoaren testuinguruan, espainiar estatuko lurralde batzuen garapen industrialari loturik gertatu zen, eta industria horrek zuen eskulanaren beharrei. Francoren diktaduraren testuinguruan, bada, immigrazio hori industrializazio eta urbanizazio prozesuekin batera garatu zen.

Ipar Euskal Herriaren kasuan, frantziar estatuko migrazio joeren eraginez, frantziar estatutik kanpoko immigrazio hori lehenago hasi zen arren, emigrazioa izan zen nagusi. 1962an, Hego Euskal Herriko bi milioi biztanle ingurutik 350.000 inguru etorkinak ziren; ostera, Ipar Euskal Herrian, 200.000 biztanle inguruko lurraldean, urtero 2.000-3.000 herritarrek jotzen zuten atzerrira. Guztira, 1850etik 1940ra, 125.000 biztanlek Ipar Euskal Herritik alde egin zuten.

Espainiar eta frantziar estatuetakoko migrazio joeren eragina erabatekoa izan da Euskal Herrian. Hego Euskal Herriaren kasuan, espainiar estatuan bezala, Europa hegoaldeko herrialdeen (Portugal, Espainia, Italia eta Grezia) arteko migrazio dinamikak gailendu dira. Eta 2000ko lehen hamarraldira arte ez da immigrazio berria deitutakoa kopuru esanguratsuetan gertatu. Ipar Euskal Herriaren kasuan, berriaz, frantziar estatuaren dinamikari lotuta, beste estatu batzuetatik iritsitako immigrazioa lehenagokoa da. Europako iparraldeko herrialdeetan gertatu bezala, 50eko hamarraldian hasi zela esan daiteke. Europako hegoalde zein iparraldeko migrazio erregimenak eremu bakoitzeko eskulanaren beharren arabera izan dira.

Ezker abertzalearen posizio historikoari begirada azkar bat

Abertzaletasunaren eta immigrazioaren arteko hartu-emana sakona eta gorabeheratsua izan da Euskal Herrian ezker abertzalea sortu baino lehen ere, euskal nazionalismoaren sorreratik bertatik egon baita immigrazioaren gaia presente. Lehen euskal nazionalismoak (Sabino Arana eta EAJrenak) espainiar jatorriko etorkinen aurka garaturiko diskurtsoak (praktikaz ñabardura ugari egin beharko lirateke), iruditeria oso bat sortu zuen. Eta ondorioz, orokorrean euskal abertzaletasunak immigrazioaren inguruan jarrera negatiboa izan duen narratiba gailendu da askotan.

Errotiko aldaketa ETA sortzearekin batera izan zen arren, azpimarratu beharra dago lehen abertzaletasunaren baitako ildoek (EAJ-Aberri, Jagi-Jagi) eta ezkerreko abertzaletasunaren lehen ildoek (EAE-ANV) bilakaera izan zutela gai horretaz egindako teorizazioetan eta garrantutako praktika politikoan.

ETA sortu eta gutxira immigrazioa eztabaidagai garrantzitsua bilakatu zen. Eztabaida hori hiru gako nagusik busti zuten: baga, abertzaletasunak Espainiatik iritsitako etorkinekiko ordura arte izandako jarrera itxia; biga, ezkerreko abertzaletasunaren sorrera bera immigrazio prozesu sakon baten testuinguruan gertatu izana. Higa, immigrazio prozesu hori eta abertzaletasuna frankismo bete-betean berritu izana.

ETAren sorreratik bertatik eztabaidagai izan zen arren, ETAren, eta ondoren ezker abertzalearen, immigrazioarekiko posizioa prozesu baten ondorio izan zen. Hasieran ikuspegi ezberdinak egon baziren ere, denbora gutxian izan zen gai ETA espainiar immigrazioarekiko posizio politiko propioa eta argia definitzeko. Garai hartan indarra zuten marxismoaren eta anticolonialismoaren ekarpenek bultzatuta, immigrazioen ondorio kultural eta desnazionalizatzaileak azpimarratu beharrean, Euskal Herrira iritsi berriak ziren langileak euskal askapen prozesuaren eta euskal nazioaren parte nola egin hausnartzeari ekin zioten. Teorizazio horretan euskal herri langilearen kontzeptualizazioa erabilgarria eta garrantzitsua gertatu zen.

Esan bezala, ETAren baitan eragina izan zuten Frantz Fanon-en pentsamenduak¹, eta oro har, anticolonialismoarenak. Esentzialismoetatik urrundu, eta borondatean oinarritutako nazionalismo iraultzaile baten alde egin zuen. Zentzu horretan, nazio-kide izateko ezaugarri zehatz

batzuk beharrean, elementu garrantzitsuena nazio askapenaren alde borroka egitea kokatu zuen ETAk. Eta horrek immigrazioari buruzko ildo ireki bat garatzeko oinarria eman zion. Ondorioz, ez zituen inolaz etorkinak nazio zapalkuntzaren erantzule gisa hartu.

Ezker abertzaleak diskurtsoa eta teorizazioa berritze horrek praktikan ondorio sakonak izan zituen. Etorkinek euskal nazioarekin eta askapen mugimenduarekin bat egitea bilakatu zen helburu nagusi. Posizio berri hori ez zen teoriara mugatu; aitzitik, herriz herri ondorio argiak izan zituen. Kanpotik etorritakoen aurkako irainak eta jarrera ezkorrak izan baziren ere, eta idealizazioan erortzeko inolako asmorik gabe, esan daiteke garai hartan egindakoaren emaitza positiboa dela. Batetik, ezkerreko abertzaletasunak gai horri lotutako ildo zehatz bat garatu zuelako. Eta bestetik, hainbat etorkinek bat egin zuten euskal nazioarekin.

Datu askorik ez dugun arren, ditugun apurrek bistarazten dute Euskal Herrira beste lurralde batzuetatik iritsitako askok egin zutela bat abertzaletasunarekin. 1979ko hauteskundeei buruzko ikerlan batek, adibidez, aipatzen du, beste indar abertzaleen batez bestekotik gora, Herritar Batasunari botoa eman zioten herritarren % 38ren jatorria Euskal Herritik kanpokoa zela. Baikortzat har daiteke, halaber, etorkinen ehuneko oso altuak zituzten herrietan, Orereta edo Hernani kasu, ezkerreko independentismoa garai hartan hartzen hasi zen indarra, eta oraindik ere baduena. Beraz, estrukturalki begiratuta, zenbait herri eta hiritan banaketa espazialean edota euskararen ezagutzan eta erabileran ezintasunak izan baziren ere, irakurketa orokor horretan ezin dugu alderdi baikorra ahaztuta utzi.

Kontrara, espainolismoak gaia baliatu nahi izan zuen abertzaletasuna eta ezker abertzalea higatzeko, besteak beste, hauteskunde kanpaina batzuetan herritarren jatorria azpimarratuz. Hautu horren adibiderik garbiena 2001eko EAeko hauteskundeetakoa izan zen. Izan ere,

PPko hautagaia zen Jaime Mayor Oreja Ajuria Enea iristeko saiakeran, immigrazioak garrantzia berezia hartu zuen. PSOE buru, Maleten diskurtsoa izenez ezagututakoak leku nabarmena izan zuen hauteskunde kanpainan. Jatorriaren arabera, lehen eta bigarren mailako herritarren banaketa faltsua elikatu zuten diskurtso horren bidez.

Gure posizio politiko historikoaren berrespena: Euskal Herrian lan egin edo bizi den oro euskal herritarra da

Ezker abertzaleak jatorri eta kultur aniztasunaz historikoki izan duen posizioa altxor bat da: Euskal Herrian lan egiten duen edo bizi den oro euskal herritarra da. Hori da gure abiapuntua. Eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzten herritarrez osaturiko Euskal Herria helburu.

Asko dira gure herrian migrazioari loturiko prozesuen parte diren herritarrak. Bizimodu hobeto baten bila edo, besterik gabe, bizimodu berri baten bila Euskal Herrira etorri direnak. Asko dira, halaber, etorri diren horien seme-alabak, arrebak. Pertsona horiek guztiak eskubide guztien jabe izan behar dira. Gai horietan herritar guztiok ditugun aukera berak izan behar dituzte. Halaber, eskubiak nola, betebeharrak berberak izan behar dituzten herritarrez ari gara. Biak behar baitira jendarte justu eta herri kohesionatu bat eraikitzeko.

Migrazio berriak: erronka eta aukera

Zibilizazio krisiak eragindako giza mugimenduak

Sistema kapitalista patriarkal kolonialak gutxi batzuen irabaziak kostata ahala kostatuz duen oinarriak berak iraunkorki sortzen ditu krisi ekonomikoak. Azken urteotan, krisi ekonomiko hainbaten pilaketa bizitzen ari gara: finantza krisitik hasi, eta egun bizitzen ari garen egoera ekonomikora arte. Horrez gain, sistemaren beraren oinarriari eragiten dioten bestelako krisi batzuen eztanda ere bizitzen ari gara. Hala nola, klima krisia, zaintza krisia eta sistemak berak behartzen dituen migrazioetatik eratorritako krisi humanitarioa. Horiek guztiek zibilizazio krisi gisa ezaugarritutako garaia osatzen dute.

Zibilizazio krisiaren testuinguruan kokatzen da, beraz, krisi humanitarioa dei dezakeguna. Testuinguru horretan geroz eta gehiago dira euren sorlekuak utzi eta immigratzen duten pertsonak, pobreziatik, gerratik, sexu eta identitate jazarpenetik edo klima larrialditik ihesi. Guztiak ere zibilizazio krisiak eragindako giza mugimenduak dira.

Migrazio berrien ezaugarriak

2000ko lehen hamarraldian hasi ziren Hego Euskal Herriaren kasuan egungo immigrazioaren ezaugarriak dituzten giza mugimenduak: Ipar Afrika, Latinoamerika eta Asian jatorria zuten migratzaileen kopuru esanguratsuak hasi ziren iristen. Hasiera batean, etorkinak nekazaritza lanek ekonomian pisu handia zuten inguruetara etorri ziren; nagusiki, Arabara eta Nafarroa Garaira. Ondoren, eraikuntza sekto-

reak behar izan zuen eskulana. Azkenaldian, zaintzari eta zerbitzuei lotutako langileak dira batik bat etortzen ari direnak. Azken horien artean emakumeak nabarmendu behar dira.

Esan bezala, Ipar Euskal Herrian lehenago hasi zen immigrazio etapa hori. Baina Lapurdiren, Nafarroa Beherearen eta Zuberoaren kasuan bada azpimarratu beharreko beste kontu bat: frantziar estatu barruko immigrazioak ez du etenik izan, eta immigrazio hori ugariena izan da gaur egunera arte. Gainera, immigrazio berri hori oro har langile jendeak, jende xeheak, osatzen duen bitartean, Ipar Euskal Herrira iritsitako immigrazio frantziarraren beste klase batekoa da.

Immigrazio berriak badu aurrekoekiko bereizgarri nagusi bat: geografikoki urrunagokoa da, eta ez du, oro har, Espainiako eta Frantziako herritartasunik. Horregatik, immigrazio berriaren kasuan, herritartasunaren eta paperen gaiak lehentasuna du.

Dena dela, immigrazio berria European zein Euskal Herrian gai batekin lotzen bada, hori multikulturalismoa da. Immigrazioaren gaia kulturalizatu egin da XXI. mendeko lehen bi hamarraldietan. Jatorri eta kultur aniztasuna ezaugarri kulturekin eta erlijioarekin lotura lukeen gaitzat aztertu da soilik, ezkutuan utziz sakonean dauden botere harremanak. Beste era batera esanda: etorkinen eta bertan jaiotakoen arteko desberdintasuna kulturala izango balitz bezala aurkeztu zaigu, eta ez eskubideei edo maila sozioekonomikoari lotua dagoen kontu gisa.

Immigrazio berriaren bereizgarri nagusienetariko bat zaintza kate globalaren² eraginak sorturikoa da. Mendebaldeko jendarteetan gertatzen ari diren aldaketa demografikoek, emakumeak lan merkatuan parte hartzen hasi izanak, zerbitzu publikoen pribatizazioak edota eskubideen merkantilizazioak zaintza

2 Zaintza kate globalak hegoaldeko emakumeak euren familiak eta herriak utzi, eta iparraldeko herrietara zaintza lanak egitera eramaten dituen logika klasista eta arrazista da. Genero, jatorri, etnia eta klase botereak baliatuz, emakume migratuak zapaltzeko logika.

krisia deiturikoa sortu dute. Zaintza lan horiei erantzuteko inolako berantolaketarik gertatu ez denez, familia eremuan edota eremu pribatuan kontzentratu dira zaintzak lanak; familia nuklearraren baitan, emakumeen bizkarretan. Dena dela, gehienetan emakume etorkinak dira zaintza lan horiek egiten dituztenak. Espainiar estatuaren kasuan, diskriminazioan oinarritzen den Atzerriartasun Legeak ahalbidetzen duen inpunitatearekin.

Immigrazio prozesu berri horiek Europan hedatzen ari den olatu erreakzionarioarekin batera ari dira gertatzen. Gaiari buruzko diskurtso eta praktiketan joera anti-immigrantea ari da gailentzen hainbat herrialdetan, immigrazioa segurtasun ezarekin edota islamismoarekin lotuz. Joera horrek ekarri du Europako geroz eta herrialde gehiagotan eskuin muturra indartzea. Are gehiago, kasu askotan, diskurtsoak diskurtso, zentro-ekerraren praktikak eskuin muturrarenaren antzekoak dira. Europako estatuak ate itxiko politika ezartzen dute, oro har, afrikar zein asiar jatorriko herritarrekin, batez ere. Horrek ondorio dramatikoak ditu, etorkinen gehiengoarentzat Europara iristeko bide ez-legal eta ez-seguruak bilakatu baitira aukera bakarra.

Horrez gain, aurreko mendearen 60ko eta 70eko hamarraldiekin alderatzen badugu, 2000ko lehen hamarralditik aurrera iritsitako immigrazio hori ez da gai zentrala izan abertzaletasunarentzat. Aitzitik, 2000ko lehen hamarraldiaren bigarren erdian, aliantzaren ideia mahaigaineratu zuen ezker abertzaleak. Ideia hark sektore zapalduen arteko lotura egin beharra aldarrikatu zuen. Bertan jaiotako eta kanpoan jaiotako herritarren arteko lotura indartu asmoz, helburu komun baten alde: herritar guztion eskubideak bermatuko lituzkeen Euskal Herri berri baten eraikuntza.

Ezker abertzaleak immigrazioaren gaia lantzeko garaian, beste une azpimarragarri bat Udalbiltzak EHNAz egindako aldarrikapenak izan

ziren, EHNA Euskal Herrian bizi ziren herritar guztiontzat tresna moduan aurkeztu baitzen, jaioterria albo batera utzita. Halaber, 2011-2015 aldian, Gipuzkoako Aldundian ezkerreko independentismoak immigrazioarekiko ikuspegi berri bat eraikitzeke egindako saiakerak ere azpimarra merezi du, migrazio alorrean, etorkin berriez gain, espainiar estatuko etorkinek ere parte har zezaten saiatur. Testuinguru horretan, Euskal Herria Hamaika Kolore egitasmoa ere sortu zen, euskalgintzaren eta etorkinen arteko hartu-emana landu asmoz. Egitasmoa txikia izanagatik, abertzaletasuna eta immigrazioak modu argian elkarlotzeko egindako saiakera azpimarratu beharrekoa da.

Zalantzarik gabe, immigrazio berri horrek erronka handia ezarri digu euskal herritarroi. Garaiko erronka nagusienetarikoa da dagoeneko. Baina, erronka den neurri berean, aukera ere bada; aukera gisa ikusi beharko genuke. Immigrazio berria euskal egitasmo nazionalaren eraikuntzan lehen lerroan kokatu eta estrategia eraginkorrek martxan jartzeko gai bagara, prozesu independentistan urrats kualitatiboak egiteko moduan egon gaitezke.

Egungo argazkia datuetan

Egungo egoeraren argazkia izatea funtsezkoa da izaera horretako gogoeta estrategiko bat egin ahal izateko. Euskal Herriaren zatiketa administratiboaren ondorioz, hurrengo lerroetan jaso ditugun datuek hutsune nabarmen bat dute: oso datu gutxi dira Euskal Herri osoa aintzat hartzen dutenak. Horregatik, datu gehienak Hego Euskal Herrikoak dira; gehienbat EAEkoak.

Aro eta garai desberdinetako migrazio mugimenduek eragin sakona izan dute Euskal Herrian. Horren isla dira Gaindegia landutako datuak: 2018an Euskal Herri osoko populazioaren % 28,5 Euskal He-

rritik kanpo jaioa zen, bai frantziar edo espainiar estatuetan, bai estatu horietatik kanpo. 2006tik honako bilakaerak adierazten digu gure herrian etorkinen kopuruak gora egin duela; 2006tik 2018ra Euskal Herritik kanpo jaiotako populazioaren portzentaiak % 1,1 egin du gora.

Immigrazioarena etengabe eraldatzen ari den auzia da. Gaur egun, Hego Euskal Herriaren kasuan, auzi eta errealtate hori soilik espainiar estatutik kanpoko immigrazio (lurralde askotarikoa, hizkuntza asko dituen, kultura eta erlijio asko dituen...) gisa identifikatzen bada ere, aurreko immigrazio etaparen eragina nabarmena da oraindik ere; gehienbat belaunaldi nagusietan³.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Gaindegiak argitaratutako datuen arabera, 2015 urtean populazioaren % 42,8 Ipar Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira, gehienak frantziar estatuko beste lurralderen batean (% 39,2). % 3,7⁴ frantziar estatutik kanpo jaiotakoak dira, eta horietatik heren bat Portugalen. Bilakaerari dagokionez, Ipar Euskal Herritik kanpo jaiotako populazioak gora egin du urtez urte, eta hazkunde nabarmenena Lapurdin eta Nafarroa Beherean izan da.

Hego Euskal Herriari dagokionez, Ipar Euskal Herriarekin alderatuz, lurraldetik kanpo jaiotako populazioaren portzentaia baxuagoa da; 2018an, % 27 zen Hego Euskal Herritik kanpo jaiotakoaren portzentaia. Aldiz, espainiar estatutik kanpo jaiotako populazioa nabarmen handiagoa da, zehazki % 10,5⁵. Bistakoa da, beraz, Hego Euskal Herriaren

3 Hala ere, noiz uzten dio kanpoko jatorria duen pertsona batek migratzaile izateari? Euskal Herrian bizitzen eta lanean 40 urte daraman Zamorako pertsona batek migratzaile izaten jarraitzen du?

4 Kontuan hartu behar dugu hemen Hego Euskal Herrian jaiotako populazioa ere sartzen dela.

5 Kontuan izan behar dugu datu honetan Ipar Euskal Herrian jaiotako populazioa ere sartzen dela.

kasuan, immigrazio berrien eragina geroz eta handiagoa dela. Aitzitik, aurreko garaietan protagonistak izan ziren jatorri espainiarreko herritarrak pisua galtzen ari dira. Piramide demografikoan aldea ere nabarmena da; espainiar jatorrikoa piramidearen goiko aldean da nagusi; aldiz, immigrazio berriak piramidearen erdialdean eta beheko aldean agertzen dira.

Hego Euskal Herrira heldutako espainiar estatutik kanpoko immigrazio dinamika ulertzeko, ekonomiaren bilakaera kontuan izan behar dugu. Immigrazio mota horrek gora egiten du hazkunde ekonomikoko garaietan; eta, aldiz, krisi garaian egonkortu egiten da. 2021eko erroldaren datuen arabera, Hego Euskal Herrian espainiar estatutik kanpo jaiotako 356.306 pertsona bizi ziren, horietatik 108.522 Nafarroa Garaian, eta 247.784 EAEn. Datu gordinek diote EAEn etorkin gehiago bizi direla. Oso tera, populazio osoaren portzentaiari begiratzen badiogu, ikusiko dugu Nafarroa Garaian pisua handiagoa dela, % 16,4koa; aldiz, EAEn % 11,2koa.

2016-2021 urteen artean espainiar eta frantziar estatuetako eta haieetatik kanpoko immigrazioa aztertzen badugu, ikus dezakegu bi estatu horietatik datorren immigrazioa ez dela modu orekatuan banatzen gure lurralde osoan, eta nabariagoa dela Lapurdin, eta baita Araba eta Nafarroa Garaiko hegoaldean ere, muga efektua dela eta⁶.

Frantziar estatuko lurretatik haragoko herrialdeetatik datorren immigrazioaren kasuan, argi ikusten dugu Ipar Euskal Herriaren kasuan hazkunde txikia izan dela, eta Lapurdin zentratzen dela. Hego Euskal Herrian, berriz, Erriberan nabaritzen da hazkunde handiena; hala nola, lau hiriburuetan: Iruñerria, Gasteiz, Bilbo eta Donostialdea. Eta Gipuzkoako hainbat eskualdetan.

6 Nafarroa Garaian iparraldean antzematen den hazkundearen kasuan, Gipuzkoatik Nafarroa Garaia joandako populazioari dagokio zurrerik.

Etorkinen egoera sozioekonomikoa

Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko immigrazio errealtateen desberdintasunek bi immigrazio tipologia islatzen dituzte: Hego Euskal Herriaren kasuan, immigrazio ekonomikoa⁷ deritzona; eta, Ipar Euskal Herriaren kasuan, estatu barneko migrazioa deritzona. Hego Euskal Herriko immigrazioa zaurgarritasuna, bazterketa eta pobrezia ditu ezaugarri. Lan baldintza prekarioak, soldata baxua eta langabezia tasa altuak dira migratzaile haien egoera sozioekonomikoaren ezaugarri nagusiak. 2022ko hirugarren hiruhilekoan, EAeko langabezia tasa % 8,2koa zen; aldiz, atzerritarrena % 23,41ekoa. Nafarroa Garaian, aldiz, tasa orokorra % 8,9koa, eta atzerritarrena % 22,4koa. Generoa kontutan hartzen badugu, EAEn emakume etorkinen langabezia tasa % 23,4koa zen, eta Nafarroa Garaian, aldiz, % 23,8koa.

Langabezia tasak agerian jartzen duen desoreka hori nabariagoa da pobreziaren datuak aztertzen ditugunean. Nafarroa Garaiaren kasuan, 2020an espainiar estatutik kanpo jaiotako % 50,3 bizi zen pobrezia erlatibo egoera batean; aldiz, populazio osoaren kasuan, % 21,3 zen. EAEn kasuan, pobrezia neurtzeko aldagaia desberdina da, eta beraz, ezin ditugu lurraldeak alderatu; baina Eusko Jaurlaritzak kalkulaturako Mantenu Pobreziaren kasuan, 2020an populazio osoaren % 8 zegoen egoera horretan; aldiz, espainiar estatutik kanpoko nazionalitatea zutenen artean % 37,9 da. Bestalde, jatorriaren arabera ere desorekak nabarmenak dira: EAEn kasuan, EABI⁸ in-

7 Migrazio ekonomikoa, arrazoi ekonomikoengatiko immigrazioa litzateke, hau da, bere jatorriko herrialdean bizi proiektu duin bat garatzeko aukera ezak bultzatu eta behar-tutako immigrazio bat. Hala ere, migrazio horren arrazoiak iturburuan munduko ezberdintasun sozial eta ekonomikoa eta kolonizazio prozesuak leudeke. Beraz, etorkin ekonomiko horien atzean, arrazoi, ekonomiko, politiko, sozial edo klimatikoak topa ditzakegu.

8 EABI inkestaren emaitzak esteka honetan <https://www.euskadi.eus/estatistika/2018ko-etorkin-atzerritarrei-buruzko-inkesta-eae/web01-s2hhome/eu/>

kestak erakusten du, oro har, afrikar jatorriko migratzaileek egoera ekonomiko zaurgarriagoa dutela. Baita, oro har, migrazio prozesuaren lehen fasean dauden migratzaileek ere.

Egoera administratiboa

Estatu bateko migrazio politikak eragin zuzena izaten du migratzailearen egoera administratiboan. Migrazio politika hori atzerritartasun lege-dian egikaritzen da eta, hortik abiatuta, helmuga herrialdean bizi eta lan egiteko baimena lortzeko prozedurak garatzen dira. Espainiar estatua-ren kasuan, bizitoki baimenak lotura estua du lan merkatuarekin, hau da, baimen hori lortzeko bide nagusienetariko bat enplegua izatea da. Nahiz eta beste hainbat bide ere badauden: errotzea, familia berriz elkartzea...

EABI inkestako datuen arabera, 2018an EAEn bizi ziren 16 urtetik gorako jatorri atzerritarreko biztanleen % 10ak lau urte baino gehiago eman ditu egoera irregularrean: % 19,6ak bi-hiru urte, eta % 14ak bi urte baino gutxiago. Hau da, talde horretako herritarren % 44ak egoera irregularrean egon behar izan du lehenago bizitoki baimena lortzeko. Jatorriari dagokionez ere, desberdintasun nabarmenak daude: Saharaz beherako afrikar jatorrikoak dira egoera irregularrean denbora luzeagoz dauden etorkinak.

Euskararen ezagutza

2021eko datuei erreparatuz, Hego Euskal Herrian bizi diren eta espainiar estatutik kanpo jaio diren etorkinen % 11,8k ondo ulertzen du euskara, eta % 20,8k ulertzen du, baina zailtasunak ditu. Hau da, Hego Euskal Herrian, etorkinen % 32k maila batean edo bestean euskara ulertzen du, % 28k maila batean edo bestean irakurri edo hitz egin

dezake, eta % 24k idatz dezake. Euskararen errealitatea kontutan izanik, esan dezakegu migratzaileen artean dagoen euskara ezagutza nabarmen ona dela. Datu horiek ez dituzte islatzen lurraldekako desorekak, ez eta euskararen egoera diglosikoak duen eragina ere. Baina testuinguru orokor bat zehazteko erabilgarriak dira.

Bestalde, etorkinen adinak eragina dauka euskararen ezagutzan. Etorkin gazteen artean euskararen ezagutza handiagoa da (% 37,2k ondo ulertzen du, eta % 31,2k zailtasunak ditu), eta adina gora doan heinean, ezagutzak behera egiten du. Desberdintasun horren arrazoi nagusia hezkuntza sisteman dago, etorkin gazteak hezkuntza sisteman euskaldundu direlako. Kontutan izan behar dugun beste faktore bat migrazio prozesua bera da. Lehen belaunaldiko etorkinen -immigrazioa abiatzen dutenen- kasuan, bizi baldintza egokiak lortzea da lehentasuna. Hau da, egoera administratiboa erregulatzea, diru sarrerak bermatzea, eta enplegu eta etxebizitza duinak lortzea. Kasu horretan, hizkuntza (euskara barne) ongizate material hori lortzeko elementu instrumental bat da. Aldiz, datuek agerian uzten duten bezala, familia migratzaileek euskara lehenesten dute euren seme-alaben hezkuntzan.

Jatorri eta kultur aniztasuna prozesu independentistan

Edozein mugimendu abertzalaren nahiz prozesu independentistaren arrakastarentzat auzi gakoa da jatorri eta kultur aniztasuna. Are gehiago, gure kasuan inoizko Euskal Herri pluralenean bizi garen unean. Eta, prospekzio guztien arabera, etorkizunean are eta pisu demografiko handiagoa izango dute jatorri atzerritarreko herritarrek Euskal Herrian. Hainbat ikerketaren arabera, datozen hamarkadetan Euskal Herrian biziko garen hiru herritarretik bat atzerrian jaiotakoa izango da.

Gurea bezalako proiektu subiranista batek estrategia sendoa behar du, arnas luzekoa, momentu eta gertakari jakinen kudeaketatik harago doana. Zentzu horretan, euskal egitasmo nazionalaren oinarri sinbolikoak eta programatikoak eguneratzen ari gara. Zibilizazio krisiaren garai historikoan independentismoak herri egitasmo sendo bat josi behar du; narratiba berri bat zehaztasun programatiko nahikoarekin. Bizitza duinerako euskarri publikoak eskaini, eta giza-segurtasuna emango duen herri egitasmo bat, baita jatorri eta kultur aniztasunaren gaiari lotuta ere.

Euskal estatuaren sortzaileak Euskal Herrian bizi garen herritar guztiok izango gara

Euskal Herriaren etorkizuna hemen bizi garen euskal herritarrok erabakiko dugu. Bestela esanda, euskal estatuaren sortzaileak Euskal Herrian bizi garen herritar guztiok izango gara. Horregatik, egitasmo independentistarentzat balio estrategiko handia duen eta, ondorioz,

jorratu behar den eremua da jatorri eta kultur aniztasunarena. Datozen urteetan egiteko independentista nagusienetariko bat izango da jatorri atzerritarreko herritarrei begirako berariazko diskurtsoa garatzea. Jatorri eta kultur aniztasuna aintzat hartu ezean, nekez izango garelako gai prozesu independentista arrakastatsurik martxan jartzeko.

Inor ez da betirako etorkin. Gure herrira lanera eta bizitzera datozen herritarrak beste jatorri bat duten euskal herritarrak dira. Haien bizitza proiektua hemen garatu nahi duten heinean, hala nahi izatekotan elkarrekin etorkizun partekatu bat eraiki dezakegun herritarrak gara guztiok. Horretarako, beste jatorri bat duten herritarrak ere herri erai-kuntzaren parte egiteko bideak landu behar ditugu.

Euskal Herriarentzat dugun proiektua nazio askapen prozesuan oinarritzen da. Hori da zapalkuntzarik gabeko herri bat eraikitzeke dugun eskaintza politikoa; euskal errepublika eraikitzeke eramango gaituen herri proiektu integral bat. Baina ez dago nazio askapenaren aldeko borrokarik, gure herrian bertan beste pertsona batzuk zapaltzen baditugu. Edo gure lurraldetik harago dauden beste herri batzuen bizkar eraikitzen badugu gure herria.

Horrekin batera, nazio identitate irekia eta plurala birsortu behar dugu. Ezker independentismoak ez du inoiz nazio identitatea modu itxian ulertu. Borondatean jarri dugu indarra; hartara, hala nahi duen oro da euskal nazio kide. Ideia hori oinarri, biziraupena arriskuan duen kontzientzia izanik, abertzale izateko modu guztiei toki egingo dien nazio identitatea eraikitzeke gai izan behar gara. Betiere, euskal nazioarentzat zutabeak diren ezaugarriak kontuan izanda; hizkuntza, esaterako.

Oinarri estrategikoak

Azken 500 urtetan munduko ipar hemisferioko ekonomia hego hemisferioaren bizkar antolatu da. Hego hemisferioko herritarren bizitzak eta lurra zukutu ditugu, etengabeko aberastasunaren, kontsumoaren eta garapenaren izenean. Deskolonizazio prozesuek ez zuten kolonizazioarekin amaitu. Ez gara mundu post-kolonial batean bizi. Nazio Batuen Deskolonizazio batzordearen arabera, gaur egun 17 lurraldek kolonia izaten jarraitzen dute. Ipar/hego arrakala lehen bezain zabala da orain. Kolonialismoa botere patrio gisa ulertuta, oraindik ere martxan dagoen logika politikoa da.

Beste alde batetik, aztarna kolonialak bere horretan dirau. Izan ere, mendekotasun, arpilatze eta espoliazio politiko, ekonomiko, kultural eta epistemikoaren praktika, logika eta dinamikak era askotara iraurarazi dira gaur egunera arte; betetzen dugun leku eta posiziotik argitu eta desmuntatu behar ditugun pobretze, mendekotasun eta indarkeriak sortuz.

Egungo migrazio prozesuen atzean ere Europak gauzatutako kolonizazio prozesuen, eta beste herrialde batzuetan erroturiko ustiatze prozesuen eragina dago. Oraindik ere, horren ondoriozkoa da arrazaren araberako gizarteen, lanaren eta ekonomiaren antolakuntza.

Gizakion historia migrazio historia da, nahiz eta migrazio guztiak berdinak ez diren. Harrera-lurraldearen aldetik nahiz helmuga-lurraldearen aldetik ez dute irakurketa bera izaten. Eta igarobidearen norabideak ere (hegoaldea-iparraldea edo iparraldea-hegoaldea) ez du tratamendu bera jasotzen iruditeriari, aitopenari, eskubideei edo

aukerei dagokienez. Ez da gauza bera Argentinara doan euskalduna izatea, edo Euskal Herrira iristen den guatemalarra izatea.

Dekolonialismoa⁹. Euskal herritarrok gure kokalekua aurkitu beharraz

Munduan han-hemen XX. mendearen erdialdean loratu ziren askapen prozesuen eraginaren ondorioz (Aljeria, Vietnam, Kuba...), hain markadetan gure mugimenduak antikolonialismotik edan izan du gehienbat. Antikolonialismotik irakurri dugu mundua, eta antikolonialismotik irakurri dugu Euskal Herria ere. Irakurketa horrekin batera praktika politiko bat garatu dugu, eta munduko herri zapalduetik elkartasun politikoa gure DNAREN parte da.

Oraindik ere, ariketa bat dugu egiteke euskal herritarrok: migrazioaren gaiari heltzeko gure kokalekua edo posizioa aurkitzea. Gizarte mendebaldarra da gurea, lehen mundua deiturikoan bizi gara. Aldi berean, euskaldunok mendeetan kolonizazio saiakerei aurre egin behar izan diegu. Hori da bizi garen botere sistema honetan dugun posizioa, eta hortik heldu behar diogu aferari.

Kokaleku edo posizio hori aurkitzeko Euskal Herriak hegoaldeko beste herri kolonizatuekin dituen ezberdintasunak onartu behar ditu. Are gehiago, zintzotasunez, historian eta oraindik ere, sistema kolonialetik onurak ateratzen dituela aitortzen hasi beharko genuke. Herri gisa, agian, kolonialismoaren errudun ez, baina onuradun bagarela barneratzen. Ondorioz, gure kokalekutik ardura batzuk ere baditugula barneratu behar dugu; badugula zor kolonial bat ere.

9 Kolonialismoa mundu ikuskera bat ere bada. Modernitatea eta eurozentrismoa erdigunean dituen mundu ikuskera. Dekolonialismoaren edo pentsamendu dekolonialaren asmoa mundu ikuskera horri kritika egin eta erauztea da.

Zapalkuntzak parekatzeko joera dugu. Horrela, euskaldunok Europako beltz gisa kokatu izan dugu gure burua. Beltza eta hegoaldekoa izateak hainbesteko pisua duen munduan, ezen zuriak eta iparraldekoak garenok tentu handiagoz aritu behar genuke.

Halaber, puntu komunak ere bilatu behar ditugu, aurrez aipatu ditugun aliantzak josteko. Esaterako, Abya Yalaren okupazioan emakumeek jasandako zapalkuntzaren eta sorgin ehizaren artean daudenak, edo Hego Amerikako herrien burujabetza prozesuen eta Euskal Herrikoaren artean daudenak. Azken batean, argi izanez kasu batzuetan zapaltzailea, eta beste kasu batzuetan zapaldua dela euskalduna.

Eskubide guztiak herritar guztientzat

Aurreko mendearen erdialdean hona etorritako pertsonen kasuan ez bezala, immigrazio berrien korapilo nagusienetariko bat da herritartasunaren eta paperen gaia. Estaturik ez dugun heinean, ez dugu euskal herritartasunik, eta ondorioz, ez dugu herritartasuna emateko gaitasunik. Baina bertara etorritakoak herri eraikuntzaren parte egin nahi baditugu, ditugun gutxieneko eskumenekin, herritar guztien egoera erregulatzeko bideak landu behar ditugu. Guztiontzako aukera berdintasuna eta eskubideak bermatuko dituzten legeak eta prozedurak martxan jarri.

Espainiar estatuko legeak salatu eta derogatu daitezzen eskatu behar dugu. Eta, aldi berean, gure eredu propioa aldarrikatu. Biak ala biak eginez: salatu espainiar estatuko lege arrazistak ahalbideratzen duela oinarritzko eskubideen urraketa, babesgabetasuna eta bestelako esplotazio, arrazakeria eta abusu-zirkuituen menpe egotea; eta aldarrikatu herritartasun eta migrazio politikan burujabetza. Herritartasun eta migrazio politika propioak garatzeko burujabetza ezin-

bestekoa baita, eta lege arrotz eta injustuetan oinarritutako atzerri-tartasun politikek gure eredu propioa garatzea oztopatzen baitute.

Bien bitartean, eskubideen aitortzan eta etorkinen bizi baldintzak hobetzen egin dezakegun hori egin behar dugu: udaletan martxan jar ditzakegun politikak abiatu, gainontzeko instituzioei presioa egin...

Zentzu horretan, nahiz eta merkatuen mesederako egindako legea izan, EAEn onartu berri den Enplegu Publikoaren Legeak erakusten du, borondate politikoa badago, posible dela pertsona migratuen erregularizazioa ahalbidetzea. Izan ere, aipatu legeak ezartzen du nazionalitatearen betekizunetik salbuesteko aukera EAEko administrazio publikoaren jarduera-sektore jakin batzuetan funtzionario izateko, interes orokorreko arrazoiengatik bada.

Herritartasun faltak eragin handiagoa du emakume migratuen kasuan. Jakina denez, migratu duten pertsonen artean emakume migratuek errealitate espezifikoa bizi baitute: migratzaile izateagatik jasan behar duten zapalkuntzari emakume izateagatikoa gehitzen zaio.

Emakume migratuen kasuan, herritartasun faltak, besteak beste, sexu langileen esplotazioa ahalbidetzen du; atek zabalduz legez kanpoko pertsonen trafikoari, eta trafikatzaileentzat irabazi handiak sortuz. Trafikatzaile horiek egitura instituzional ahulaz eta migrazioaren erregulazio eskasaz baliatzen dira emakume migratuak esplotatzeko, indarkeria eta mehatxuak erabiliz jatorrizko herrialdean, migrazio-ibilbidean eta helmugako herrialdean.

Funtsezkoa da, besteak beste, esparru sozio-laboraetik zein mugimendu feministatik emakume migratuek bizi duten errealitate gordin horri erantzuteko aliantzak eraikitzea.

Kulturartekotasuna eta inklusioa

Euskal jendartea inoiz baino pluralagoa da. Milaka dira hainbat garaitan euren bizitza proiektua garatzera etorri direnak. Gaur egungo Euskal Herria ezin da ulertu horrek sortu duen aniztasuna kontuan izan gabe. Aniztasuna errealitate konplexu bat da. Eta arau komun batzuen gainean elkarbizitza eraikitzea da gakoa. Horregatik, gure herrian egon badagoen aniztasuna kudeatzea da herri gisa dugun erronka nagusienetariko bat.

Aniztasunak (kultura, hizkuntza, erlijioa...) talkak sor ditzake eraiki nahi dugun jendarte ereduarekin. Edozein kasutan da aniztasuna kudeatu beharreko errealitate bat, herri kohesionatu bat eraiki asmo badugu. Izan ere, immigrazioak edota etorkinek ez dute jendartea desorekatzen. Gure gizarteak eta sistemak errealitate horri ematen dion erantzuna da desorekak sor ditzakeena, edo kontrara, kohesioa indartu dezakeena. Beraz, aniztasunaz hitz egiten dugunean, kudeaketak eragin zuzena du euskal jendartearen kohesioan.

Azken hamarraldietan kudeaketa hori egiteko hainbat eredu saiatu izan dira mendebaldean. Kulturartekotasunaren¹⁰ eredia da, gure ustez, eredu horien guztien artean eraginkorrena. Kulturartekotasunak kulturen arteko harremana eta elkarrekintza defendatzen ditu, haien arteko berdintasuna aldarrikatuz. Elkarrekintzan oinarritzen da,

10 Kultur aniztasuna kudeatzeko ereduen barruan bi korrante ditugu: alde batetik, multikulturalismoa, eta beste alde batetik, kulturartekotasuna. Azken hamarkadetan multikulturalismoa izan da Europako herrialdeetan erabili izan den eredia. Eredu horren oinarriak jatorri eta kulturen aitortzan, errespetuan eta eskubideen aitortzan oinarritzen da, eta hori garatzeko ezberdintasun politikak aldarrikatzen ditu. Hainbat herrialdeetan hainbat hamarkadatan garatu izan dute, eta arrakasta eredu bezala agertu izan da. Hala ere, azken urteetan eredu horren mugak eta arazoak agerian geratu dira, desberdintasun, segregazio, bazterkeria prozesu eta abarrekin lotu izan delako. Azken urteetan, aldiz, eredu multikulturalaren aurrean kulturartekotasunaren eredia indarra hartzen hasi da. Eredu horrek kulturen arteko harremana eta elkarrekintza defendatzen ditu eskubide berdintasunean, eta aniztasuna aldarrikatuz gizarte jakin batean. Aitortzaz eta errespetuz, elkarrekintzan oinarritzen den eredia da.

beraz, eredu hori. Elkarrekintzaz ari garenean, kulturen arteko elkar nahasteaz ari gara; aldebikoa behar duen nahasteaz.

Kulturartekotasunaren eredia gure herrira ekartzeko apustua egiten dugu, euskal nazioa gure herrian dauden beste kultura batzuekin aberasteko. Horrek berarekin dakar gure nazio proiektua etengabe berrikusteko eta osatzeko jarrera izatea. Eta ulertzea gure herrian daukagun errealitate pluralak gu ere interpelatzeko gaituela eta, ondorioz, gure proiektua ere egokitzea eskatzen duela.

Halaber, inklusioaren¹¹ alde egiten dugu. Kontua ez da atzerritik datozen herritarrak gizarteratzea soilik. Zalantzarik gabe beharrezkoa da bazterketa sozial ororekin amaitzea, eta herritar guztiok bizi baldintzak duinak izatea. Baina hortik harago joan behar dugu. Helburua herritar guztiok garapen pertsonala baldintza berdinetan garatu ahal izateko oinarriak eraiki, eta aukera berdintasuna bermatzea izan behar da.

Bestalde, funtsezkoa da gutxieneko batzuk adostea, elkarbizitza modu egokian eraikitzeke gai izango bagara. Horregatik, berdintasunean eta laikotasunean oinarritutako jendarteak eraikitzeke apustua egiten dugu. Uste dugu bakoitzak dituen erlijio sinesmenak edota kultur praktikak errespetatuak izan behar direla.

Aniztasunaz ari garela, aipamen berezia merezi du Ijito herriak, ez delako atzerritik gure herrira euren bizi proiektua garatzera datorren giza taldea; mendeak atzera, gure herriaren parte den giza taldea da, eta hizkuntza, kultura eta ohitura propioak ditu. Eta beraz, gure herriaren izatearen parte da. Jasaten dituzten bazterkeria, arrazakeria eta eskubide urraketak amaitzea ezinbestekoa da.

11

Gizarteratzeak bazterkeria egoera jasaten duten pertsonen duintasunean eta bizi baldintzetan jartzen du fokua. Inklusioak, aldiz, pertsona ororen aukera berdintasunean jartzen du arreta, euren garapen pertsonala bermatze aldera. Beraz, gizarteratzea baino harago doa.

Ildo estrategikoak

Ezker independentismoak orain arte eremu horri lotuta garatutako praktika politikoak oinarrizko zenbait gako oso presente izan ditu. Aurrerantzean martxan jarriko ditugun ildoetan ere badira barneratu behar ditugun zeharkako zenbait ideia:

Baga, jatorri eta kultur aniztasunaren gaian nazio ikuspegia txer-tatzea. Immigrazioan espainiar eta frantziar estatuen markoak dira nagusia. Etorkina zein den definitzerakoan, adibidez. Horren aurrean, nazio ikuspegia presente izan behar du ezker independentismoak, besteak beste, immigrazioaz aritzerakoan Espainiatik edo Frantziatik etorritako migrazioak ere kontuan hartuz.

Biga, ildo erreakzionario oro ekiditea. Europako, Espainiako eta Fran-tziako zein Euskal Herriko beste indar batzuek zabaldutako ikuspe-giek etorkinei buruzko ikuspegi erreakzionarioak hauspotzen dituz-te. Nagusiki eskuin muturra bada ere diskurtso horiek zabaltzen ari dena, kezkarria da ezkerreko sektore batzuetan aipatu ikuspegi-ek daukaten barneratzea eta hartzen ari diren indarra. Horregatik, fun-tsezkoa da ezkerretik immigrazioaz zein beste gai batzuek diskurtso erreakzionarioak aktiboki ekiditea, besteak beste, 'independentismo anti-immigrantea'-ri ateak itxiz.

Higa, diskurtso politikoa eraikitzea. Oro har, 70eko hamarraldiko dis-kurtsoaren ildotik, ezkerreko independentismoak immigrazioari bu-ruzko ikuspegi politikoa azpimarratu behar du: nola erakarri jatorri

migratzailea duten herritarrak gure proiektura, eta ondorioz, euskal naziora.

Euskal Herria harrera herria

Gure herrira datozen herritarrak, kasu askotan, euren herrialdea eta bizitokia uztera behartuak izan dira. Lehenago aipatu dugun bezala, askotariko arrazoiak aurki ditzakegu giza mugimendu horien atzean: krisi ekonomikoa, pobrezia, jazarpen politiko eta soziala, gerrak, klima krisia...

Immigrazio behartu horiek oztopoz betetako bidea dakarkie etorkinei; oztopo legal, ekonomiko eta sozialez beteriko bidea. Horren ondorioz, egoera zaugarrian eta harrera beharrean egon ohi dira helmuga herrialdera heltzen direnean; segurtasun legal, ekonomiko edota sozial gutxiarekin.

Berriki onartu diren Europako Batasuneko Migrazioarako eta Asilorako Itunak eta Frantziako Asanblea Nazionalaren 'legez kanpoko migrazioaren aurkako legeak' are oztopo gehiago jarriko dizkie etorkinei. Izan ere, aipatu bi erabaki horiek, Europara inor ez heltzea dute helburu. Eta horretarako, orain arte modu ez legalean egindakoak ofizialdu dituzte, besteak beste, mugan bertan itzularaztea legeztatuz.

Giza mugimendu horiek behartzen dituzten jatorrizko arrazoiak salatu behar ditugu, baita giza eskubideak betetzen ez dituzten gobernuen (EB, estatu espainiarra eta frantziarra, bertako gobernuak...) politikak ere. Halaber, migrazio politika propioak egiteko burujabetza ezinbestekoa zaigula aldarrikatu behar dugu. Bitartean, eskuragarri ditugun baliabideekin, gure ardura da Euskal Herrira heldu berri diren herritarren egoeraz ardura hartu, eta behar duten harrera egi-

tea. Besteak beste, baliabide material eta juridikoak lortzeko bideak erraztuz gure herrira etorri berriak diren herritarrei.

Ez dira gutxi, gure lurretatik kanpo baina gertuan, azken urte hauetan izan diren tragediak. Hilotzez betetzen ari dira gure inguruko itsasoak; Mediterraneo, nagusiki. Helmuga herrialdea izateaz gain, bagara igarobide herrialdea ere. Gure herrira datozen herritarrez gain, asko dira gure herritik igarotzen direnak ere. Euskal Herriak, bi estaturen menpe dagoen herria izanik, inposaturiko muga bat ere badu. Guretzat inposatutako muga izateaz gain, beste herrialde batzuetara joateko bertatik igarotzen diren etorkinentzat oztopo izugarria bilakatu da. Zoritxarrez, hilotzak Bidasoara ere iritsi dira azken garaian.

Horregatik, bertatik igaro nahi duen edonorentzat pasabide seguruak aldarrikatu behar ditugu. Eta horrekin batera, pertsonen 'sale-rosketa' delituaren aitzakian, babesa antolatzen ari diren herritarrek kriminalizatzen eta jazartzen ari diren arren, muga inguruan bizi den muturreko egoerari erantzuten jarraitu behar dugu. Horregatik, Irungo Harrera Sarea, Ipar Euskal Herriko hainbat herritar edota Bortziritako eta Baztango zenbait herritar egiten ari diren lan isila indartu beharreko lana da, zalantzarik gabe.

Euskal Herria elkarrekin bizi, elkarrekin eraikitzeko

Jendartean zabaldua dagoen ikuspegi funtzionaletik harago, etorkinak ez datoz soilik lan bila edo guk nahi ez ditugun lanak egitera gure herrira. Etorkinak bizi proiektu bat martxan jartzera etortzen dira: lanera, bizitzera, harremanak eraikitzera, aisialdira, eskolaratzera, kirola egitera, parte hartzera...

Bizi proiektu horiek baldintza egokietan garatzeko aukerak ematea eta testuinguru egokia ahalbidetzea funtsezkoa da euskal egitasmu nazionalarentzat. Horretarako, bizitza komunitarioan (aisialdian, musika edota kirol eskoletan, Olentzeroren etorrera antolatzerakoan...) egun egon badauden 'isilpeko segregazioak' gainditu behar ditugu. Tokian toki bizitza komunitarioa antolatzerako unean arreta jarriz bizitza komunitario horretan guztiok parte hartzeari.

Horrekin batera, migratu horiek dakartzaten minak osatzeko bideak eskaini behar ditugu. Daukagun pribilegio egoeratik, min horien ardurara hartu behar dugu, euren denbora eta espazio propioak errespetatuz, eta entzute aktiborako jarrera izanez.

Hainbat esparrutatik ekin behar diogu Euskal Herria elkarrekin eraikitzeke lanari. Are, dagoeneko asko dira martxan diren egitasmu, proiektu eta lan ildoak. Asko da egiten ari dena; are gehiago da oraindik egin daitekeena.

Iradokitzaileak zaizkigu, esaterako, udalgintza herrigilearen bidetik hainbat herritan EH Bilduk martxan jarri dituen babes egitura komunitarioak¹². Tokiko eskalan egin daitekeenaren mugak aintzat hartuta, baina, aldi berean, aukerak ere izan badituela uste dugu, eskala gertukoena den heinean. Dualtasun sozialerako arriskua erreala den honetan, baliabide instituzionalak eta gaitasun komunitarioak uztartuz, inor atzean utziko ez duen herria eraikitzeaz ari gara. Arreta be-

12 Mekanismo komunitarioak aktibatzea beharrezkoa izango da inor atzean ez uzteko saiakeran. Babes sare komunitarioen helburua da komunitatearen baliabide guztiak aktibatzea zaugarritasun egoeran dauden herrikideei laguntzeko, gutxieneko bizi baldintza materialak ziurtatzea gure artean bizi den edonori. Horretarako, beharrezkoak dira udaleko gizarte zerbitzuak, eskolak, osasun sistemako langileak, herriko elkarte-gintza eta elkartasuna aktibatzerako zuzendutako gizarte zibil antolatua. Esperientzia interesgarri bat Otxandiokoa da; herri txikia izanagatik, interesgarria da bertan osatu den eredu: 11 Lore Elkartea sortu zen gizarte zibiletik elkarlan komunitarioa bideratzeko, zeinak ehundik gora herrikide saretzen dituen.

rezia jarriz bizi eta lan baldintzetan. Bigarren atalean aipatu dugun moduan, jatorriak harreman zuzena baitu bazterketa sozialarekin eta lan baldintza prekarioekin.

Hezkuntzaren eremua ere estrategikoa da Euskal Herria elkarrekin eraiki nahi badugu. Segregazioaren aurkako neurri eraginkorrak martxan jartzearekin batera, geroz eta herri eta auzo gehiagotan martxan jartzen ari diren Herri Hezitzaileak eremu interesgarriak dira herri kohesioa eraikitzeko. Eskolatik harago ere heziketa prozesua elkarrekin garatu ahal izateko.

Halaber, elkar aitortzeaz eta hartu-emanak eraikitzeaz ari garela, herrigintzan ere elkarlan espazioak zabaltzeak berebiziko garrantzia du. Ikuspegi interseksionala¹³ aintzat hartuta, bertan jaiotakoen eta atzerrian jaiotakoen artean osatutako elkarte, talde edo mugimenduak sustatzeko erronka ere badugu; izan jatorri eta kultur aniztasunak berak sortutako hainbat egoerari aurre egiteko, edo izan bizitza komunitario eta soziala (mugimendu feminista, mugimendu euskaltzalea, lan eta bizi baldintza duinen aldeko borroka...) antolatzeko beste edozein espaziotan.

Norabide horretan, emakume langile migratuek bizi duten egoerari soluziobidea eman behar zaio lehentasunez. Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa eraikitzeko borrokaldia amaieraraino eramanez, edo gaurdanik tokian toki martxan jar ditzakegun proiektu komunitarioak identifikatuz. Mugimendu feminista jorratzen ari den bidea konplexua

13 Interseksionalitateak zalantzan jartzen ditu egungo botere harremanak eta pribilegio sistema, planteatuz ez garela zapaldu bakarrak, eta ez garela zapalduak bakarrik. Ikuspegi hori feminismoarekin uztartuz, emakume izateagatik eratzten den desberdintasun soziala jendartean dauden beste desberdintasun batzuekin (arrazak, klasea, nazioa...) gurutzatzeko erronka jartzen du mahai gainean. Interseksionalitatea tresna analitiko eta politikoa da beraz, eta menderakuntza sistemetako botere-harremanak izendatu, eta elkar ahalduntzeko guneak sortzea proposatzen du.

bezain eredugarria da gure ustez. 2019ko azaroaren 1tik 3ra Duran-
gon egindako Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetako eztabaidak,
edo zaintzaren aldarria erdigunean jarriz egin berri den Greba Femi-
nista Orokorrak erakusten duten bezala.

Arazakeriaren kontrako dinamika indartu

Jatorriaren, arrazoi kulturalen edota larruazalaren kolorearen ondo-
riozko diskriminazio edota bazterketa soziala borrokatu beharreko
eremuetako bat da. Modu bistakoagoan edo ez hain bistakoan, baina
egunez egun Euskal Herrian ere diskriminazio eta bazterketa sozial
kasuak gertatzen dira.

Aipatu kasu horiek ikusaraztea eta salatzea funtsezkoa da, arraza-
keriak hartzen dituen eremu guztiak kontuan hartuta: indibiduala, ko-
lektiboa eta instituzionala. Horrez gain, arrazakeriarekin amaitzeko
oinarri-oinarrian dagoen egiturazko errealitatea erauzteko bidea jarri
behar dugu. Horretarako, bertakoen eta etorkinen arteko gutxieneko
harremana eta trukea bultzatu behar dugu.

Horregatik, arrazakeriaren kontrako mugimendua indartzea izan
behar da gure lehentasunetako bat. Mugimendu handia du eta gau-
za interesgarri asko egiten ari da dagoeneko eremu honetan: etorki-
nen eskubide zibil eta politikoen alde, edota kalean lo egiten duten
pertsonek defentsan aritzen direnak, esaterako.

Euskara eta etorkinak: erronka, eta ez arazoa

Sarri euskararen eta immigrazioaren gaia dikotomia gisa ulertu izan
dira. Baina ez gaitezen erratu; euskararen eta euskal kulturaren ezi-

nak immigrazioaren hazkundearekin lotzea falazia hutsa da. Hizkuntza gatazka argiki frantsesa eta gaztelania inposatzen digutenekin dugu, ez atzerritik gure herrira bizitzera datozenekin.

Baina euskararen egoera zein den ezin dugu ahaztu. Hizkuntzaren egoera diglosikoa behin eta berriz mahaigaineratu behar da. Euskararen eta etorkinen artean dagoen harreman horretan korapiloak sortzen dira, eta ondorioz, korapilo horiek askatzeko lan egin behar dugu. Baina argi dugu etorkinak ez direla arazo bat euskararentzat, aurkara, erronka bat dela atzerritik gure herrira bizitzera datozenak euskarara hurbiltzea. Erronka bat, eta egiteko bat.

Hizkuntzak ezaugarri irekiak ditu, zailtasun handiak izan badaitezke ere nahi duenak ikas baitezake. Hala ulertu izan du ezker independentismoak. Eta orain ere hori da erronka: euskara irekitzea, eta atzerritik datozenentzat euskara harrera hizkuntza bilakatzea. Horretarako, gertuko komunitatetik egin daitekeenaz gain, funtsezkoa da politika publikoen bidez euskara ikasteko doakotasuna bermatzea.

Euskara gaur egun ez baita eskubide unibertsala. Ez baitago eskuragarri nahi duen ororentzat. Dakarren kostu ekonomikoari, eskubide zibil zein denbora falta gehitzen badizkiogu, etorkinentzat oso prozesu konplexua da euskara ikastea. Horregatik, euskara zubi gisa landu behar da. Euskal herritar guztion hizkuntza komuna izatea nahi dugun heinean, kohesio sozialerako tresna ere izan daitekeelako. Jakitun garen arren, hori errealitatean oso ezberdina da Gasteizen edo Abadiñon. Errealitate bakoitzera egokitutako estrategiak beharko dira, beraz.

Euskal Herrira iritsitako pertsona askok euren jatorrizko hizkuntzen deuseztapen linguistiko eta epistemologikoko prozesuak bizi izan dituzte. Puntu horretan aurki genitzake zubiak eraikitze aukera be-

riak. Euskara hurbiltasunetik elkarbanatu behar da, kontu handiz. Hizkuntza bat ikasteko garrantzitsua da bizi baldintza egokiak izatea. Eta etorkin askok ez dute halakorik. Ezin dugu euren bizkar gainean jarri bertan jaio diren askori jartzen ez diegun motxilarik.

Gure burua deseraiki beharraz

Dokumentu honen hasieran esan dugun bezala, jakitun gara, zoritxarrez, egun, oraindik, patriarkatuak zeharkatzen gaituen hein berean, ikuspegi mendebaldarrak ere zeharkatzen gaituela. Horrek dauzkan ondorio guztiekin. Ezker abertzalearen beraren osaeratik hasita, bista-koa baita haren osaerak ez duela Euskal Herriak jatorriaren eta kulturaren ikuspegitik daukan aniztasun guztia jasotzen. Horregatik, prozesu honen helburuetako bat ikuspegi hori bera berrikusten hastea da.

Dokumentu hau berrikuste horretan mugarri bat izango delakoan gaude, ezker abertzaleko militante bakoitza zeharkatzen duen ikuspegi mendebaldar hori zalantzan jartzen hasteko balioko baitu. Horrela, beste gogoeta bat gehitzen diogu LABek azken kongresuan eremu honetaz egindakoari, eta martxan jarritako idazkaritza anti-rrazista¹⁴-ri.

Militante zein mugimendu gisa konpromisoak hartzen hasteko unea da; gure buruak deseraikitze unea. Hori, ordea, ez da egun batetik bestera egiten. Edozein deseraikitze ariketak denbora eskaintzea eta bitartekoak jartzea eskatzen du. Eremu honetan ikuspegi eraberrituak eraikiko baditugu, prozesu sakonak martxan jarriko ditugulako izango da. Are gehiago aintzat hartzen badugu abiapuntu ahula dugula arrazakeriaren kontra gure buruak eta gure praktikak birkokatzeko.

Horregatik, mugimendu osoa bustiko duen deseraikitze prozesu bat martxan jarriko dugu. Gogoeta estrategiko hau amaitzearekin batera diseinatu eta martxan jarriko dugun prozesu bat. Horretarako, beharrezkoa izango zaigu ekintza plan zehatz eta eraginkorra martxan jartzea.

Denborarekin subjektu antirrazista izatera eraman behar gaituen prozesua martxan jartzeko konpromisoa hartzen dugu. Ez baitago gure herrian hain sustraitua dagoen errealitateari erantzun baikorrik ematerik, guk geuk gure burua deseraikitze biderik egin ezean.

Azken hitza

Sorturen azken kongresuan erabaki bezala, jatorri eta kultur aniztasunaren inguruko gogoeta estrategikoa eraberritzen ari gara, oinarri eraberritua jarriz lehendik ere ezker independentismoak izan bazuen ikuspegiari. Horrekin batera, dokumentu honen bidez aurrerantzean jorratu asmo ditugun egitasmo, proiektu eta ildoen lehen identifikazio bat egin dugu.

Jatorri eta kultur aniztasunak euskal egitasmo nazionalaren eraikuntzan izan beharreko lekuaz idatzi dugun dokumentu honek, eremu honen marko politiko orokorra jartzeko balio izan du. Baina badakigu dokumentu honekin ez diegula eremuari loturiko ertz guztiei heldu; ez ditugula galdera guztiak erantzun. Eremu konplexua da honako hau. Horregatik, dokumentu honek jartzen digun oinarritik abiatuta, datozen hilabeteetan sakontzen jarraitzeko erronka dugu eskuartean; prozesu gisa ulertzen dugu eremu honen ertz guztietan sakontzeko lana.





